

HITZAURRE

Agustín Azkarate Garai-Olaun
Euskal Herriko Unibertsitateko Arkeologia Katedraduna
Arkitekturaren Arkeologia saileko Ikerketa Taldeko (AAIT)
Zuzendaria

KULTURA PAISAIA GUZTIZ BEREZIA

Gehiegikerietan erori gabe, esan dezagun Añanako Gatz Harana Euskadiko Autonomia Erkidegoko leku berezienetakoa dela. Gatz Haranaren handitasuna ez datza bere ezaugarri formal, estetiko nahiz monumentaletan, baizik eta bere ezaugarri guztiz berezietan eta berezkoaren eta ekintza antropikoaren arteko sinbiosi gisa erakusten duen bikaintasun gaindi ezinean, iraunkortasunaren eredu izan baita gutxienez 1.200 urtetan zehar.

Ama naturak eskaintzen dituen aukeren eta gizakiak dituen beharren artean zenbaitetan lortzen den mestizaiaren —jakintsua, lasaia eta motela— erakusgarri diren lekuak dira Kultura Paisaiak. Zentzugabeko iriotea eta handinahikeria baino begirunea, zuhertasuna eta lasaitasuna lehenetsi dituzten topaleku miragarriak dira Kultura Paisaiak. UNESCOk 1992an egindako Munduaren Ondareari buruzko Konbentzioan oinarritzko hiru kategoriatan banatu zituen: 1. *Paisaia zehaztua*, gizakiak berariaz itxuratua eta sortua (parkeak eta lorategiak, esate baterako); 2. Gizarte, ekonomia, administrazio edo/eta erlijio izaerako egoerei erantzuteko xedean organikoki *bilakatu* den paisaia, nola *fósila* hala *bizia* daithekeena; 3. *Paisaia elkarkorra*, hau da, material fisikoengatik ez baizik eta erlijio, sinbolo eta kultura izaerako balioei lotutako oroitarazteko ahalmenaren indarragatik garrantzi guztiz berezia duen paisaia¹.

Añanaren kasuan, bistan da, organikoki halako bilakaera bizi izan duen paisaiaren aurrean gaude, artean bizirik dagoena, arriskuan baina, datuek agerian uzten dutenez: 1960. urtean 5.648 gatz-larrinetan ari ziren lanean Gatz Haranean, eta 2000. urtean 42 larrinetan baino ez. Gainbehera geldiezina XX. mendearen erdialdetik aurrera gertatu da, halako errentagarritasunik eskaintzen ez zutelako (itsasbazerreko gatzagen eta gatz-hobien onerako).

Lehen une batean, eta prozesuari bestelako norabide bat emateko xedean, lekua berreskuratzea eta bertako industria jarduera sustatzea erabaki zen. Eta,

¹ http://whc.unesco.org/documents/publi_basictxts_es.pdf

PRÓLOGO

Agustín Azkarate Garai-Olaun
Catedrático de Arqueología de la Universidad del País Vasco
Director del Grupo de Investigación Arqueología
de la Arquitectura (GIAA)

UN PAISAJE CULTURAL EXTRAORDINARIO

No quisiéramos parecer exagerados, pero nos atreveríamos a decir que el Valle Salado de Añana es uno de los lugares más extraordinarios de cuantos existen en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Su grandeza no radica en su rasgos formales, estéticos o monumentales, sino en su excepcionalidad y en la insuperable perfección que alcanza como simbiosis entre lo natural y lo antrópico, como modelo de sostenibilidad durante al menos 1.200 años.

Podríamos definir los Paisajes Culturales como aquellos lugares que ejemplarizan el mestizaje —sabio, sereno y lento— que en algunas ocasiones se alcanza entre las oportunidades que la madre naturaleza ofrece y las necesidades que el ser humano tiene. Los Paisajes Culturales no son sino ese milagroso punto de encuentro en el que el respeto, la prudencia y la templanza han sido más fuertes que el despilfarro y la ambición inconsciente. La Convención del Patrimonio Mundial de la UNESCO de 1992 los dividió en tres categorías fundamentales: 1. El *paisaje definido*, concebido y creado intencionalmente por el hombre (parques o jardines, por ejemplo); 2. El paisaje que ha *evolucionado* orgánicamente como respuesta a circunstancias de carácter social, económico, administrativo y/o religioso, y que podría ser tanto *fósil* como *vivo*; 3. El *paisaje asociativo*, es decir, aquel que adquiere una relevancia excepcional no tanto por su materialidad física cuanto por la fuerza de su capacidad evocadora asociada a valores de naturaleza religiosa, simbólica o cultural¹.

Parece claro que, en el caso de Añana, nos encontramos ante un paisaje evolucionado orgánicamente y que permanece todavía vivo, aunque en riesgo, tal y como lo evidencian los datos: en el año 1960 eran 5.648 las eras de sal que estaban funcionando en el Valle Salado y solamente 42 en el año 2000. La imparable decadencia no era sino consecuencia de la pérdida definitiva de rentabilidad económica (a favor de las salinas costeras y las minas) a partir de mediados del siglo XX.

En un primer momento, y para revertir el proceso, se pensó en una recuperación del lugar potenciando su actividad industrial. Y, a tal fin, se llegaron a proponer

¹ http://whc.unesco.org/documents/publi_basictxts_es.pdf

helburu horien bila, ekoizpena emendatzeko hainbat irtenbide proposatu ziren: gatzuna aberastea, gatza berotegietan ekoiztea, kristalizazioaren prozesuaren lastertasuna azkartzea (1984), HBS panelak baliatuta lurruntze naturala azkartzea (1992) eta, azkenik, gatza lurrinaren bir-trinkotze mekanikoaren bidez lortzea (1993). Aitzitik, proposatutako aukera bakar bat ere ez zen errentagarritasuna bermatzeko gai.

Urte batzuk gehiago igaro behar izan zuten beste ikuspuntu bat nagusitzeko...

Nekez onartzen dute batzuek aurreko belaunaldien memoria kolektiboaren depositua izateaz gainera, gizarte askotan gizartea, ekonomia eta komunitatea *garatzeko* bide alternatiboen iturri bihurtzen ari dela Kultura Ondarea. Agerikoa denez, ez da hori gure kasua. G. Yúdice² adituarekin bat eginez, guk uste dugu ezinezkoa dela kultura ondarea baliabidetzat ez hartzea, *episteme* moderno bat bezala, gizarte transborsalitatea oinarri duena, haren kudeaketak eta errentagarritasunak era askotako agenteak izan baititzakete onuradun³. Eta Franckurt Eskolak⁴ bere garaian salatu zuen merkantilizazioaren arriskuak ahantzi gabe, esan dezagun joko-zelaia agintarien eskura ez ezik proiektu alternatiboak planteatzen dituztenen eskura ere badagoela⁵, eta proiektu horiek eskualde atzeratuak ekonomikoki biziberritzea, hondatutako hiriko «ghetoak» berreskuratzea eta haiei balioa ematea, globalizazioaren marea galdutako nortasunak sustatzea edo beste edozer izan dezaketela xede nagusi⁶.

Ez dira gutxi adibideak; gogora dezagun nola siderurgiari edo/eta meatzaritzari emandako eremu zabalak turismoaren intereseko gune bihurtu diren kultura, kirol, jolas eta aisialdirako baliabideekin hornitu eta gero (Rhur ibaiaren harana, Alemanian, eta Teruelgo Martín ibaiaren arroa —Espainian—); edo nola landa eremu atzeratuak birmoldatuak izan diren haietako ondarea eta baliabide naturalak oinarri hartuta (Pirinioetako Frantziako isurialdeko ibarrak, Boi harana eta Huescako San Juan de la Peña)⁷.

2 Yúdice, G. (2002), *El recurso de la cultura. Usos de la cultura en la era global*, Barcelona.

3 *Ibidem*, 45. or.

4 Horkheimer, M., Adorno, Th. (1988), *Dialéctica del Iluminismo; La Industria Cultural. Iluminismo como mistificación de las masas*, Buenos Aires.

5 Nazio Askapenerako Armada Zapatistaren estrategiak, esate baterako, ondo asko jakin izan zuen tradizionalki Estatuaren esku egondako kultura baliabideak bere onerako erabiltzen (Yúdice, G. *El recurso de la cultura*, 125-134. orr).

6 Azkarate, A., Reflexiones, desde una universidad que aún no existe, sobre patrimonio y socialización. (Un estudio de caso: Vitoria-Gasteiz, la ciudad de las tres catedrales), XXXV edición de *Semana de Estudios Medievales, La Historia Medieval. Percepción académica y percepción*, Iruñea, 2008 (e.p.).

7 Eskerrik asko Marot, T. eta Nicolau, N. adituei emandako datuengatik (*Kultura, Ideas y Estrategias para el Patrimonio*, Barcelona).

diversas soluciones que incrementaran su productividad: enriquecer la salmuera, producirla en invernaderos, aumentar la velocidad del proceso de cristalización (1984), acelerar la evaporación natural mediante paneles HBS (1992) o, finalmente, conseguir la sal mediante la recompresión mecánica del vapor (1993). Ninguna de las opciones propuestas era capaz, sin embargo, de asegurar su rentabilidad.

Habría que esperar algunos años más para que el punto de vista cambiase...

A algunos les cuesta aceptar que el Patrimonio Cultural, además de depósito de la memoria colectiva de las generaciones que nos precedieron, se esté convirtiendo también en una fuente de medios alternativos para el *desarrollo* socioeconómico y comunitario de muchas sociedades. Obviamente no es nuestro caso. Creemos, con G. Yúdice², que es imposible no concebir el patrimonio cultural también como recurso, «como una *episteme* moderna» caracterizada por su transversalidad social en la medida en la que su gestión y rentabilización puede beneficiar a actores muy diversos³. Sin olvidar los riesgos de mercantilización que denunciara en su día la Escuela de Franckurt⁴, hay que admitir que el terreno de juego está no sólo a disposición de quienes detentan el poder sino también de quienes plantean proyectos alternativos⁵, sean estos para revitalizar económicamente zonas deprimidas, para prestigiar y recuperar «ghetos» urbanos deteriorados, para potenciar identidades diluidas en la marea de la globalización o para cualquier otra causa⁶.

Ejemplos no faltan; baste recordar la reconversión de amplias áreas destinadas a la siderurgia y/o la minería en zonas de interés turístico con productos culturales, deportivos, de tiempo libre y de entretenimiento (el valle del Rhur en Alemania o la cuenca del río Martín en Teruel —España—); así como la reconversión de áreas rurales en crisis a partir del patrimonio y los recursos naturales (los valles pirenaicos de la vertiente francesa, el valle de Boí, o San Juan de la Peña en Huesca)⁷.

2 Yúdice, G. (2002), *El recurso de la cultura. Usos de la cultura en la era global*, Barcelona.

3 *Ibidem*, p. 45.

4 Horkheimer, M., Adorno, Th. (1988), *Dialéctica del Iluminismo; La Industria Cultural. Iluminismo como mistificación de las masas*, Buenos Aires.

5 La estrategia del Ejército Zapatista de Liberación Nacional, por ejemplo, supo utilizar en propio beneficio recursos culturales que estuvieron tradicionalmente en manos de Estado (Yúdice, G. *El recurso de la cultura*, pp. 125-134).

6 Azkarate, A., Reflexiones, desde una universidad que aún no existe, sobre patrimonio y socialización. (Un estudio de caso: Vitoria-Gasteiz, la ciudad de las tres catedrales), XXXV edición de *Semana de Estudios Medievales, La Historia Medieval. Percepción académica y percepción*, Pamplona, 2008 (e.p.).

7 Agradecemos los datos a Marot, T. y Nicolau, N. (*Kultura, Ideas y Estrategias para el Patrimonio*, Barcelona).

Zergatik ez egin beste horrenbeste Arabako men-
debaldean? Makineria norabide horretan abiarazi zen
hain zuen ere joan den mendearen amaieran. Gaine-
ra esperientzia arrakastatsu bat izan zen abiaburua⁸ eta
Arabako Foru Aldundiko Arkitektura Ondarearen zu-
zendaritzak —J.I. Lasagabaster adituaren zuzendaritza-
pean— egoki iritzi izan zuen hura errepikatzea. Tokia-
ren egoerari eta beharrei egokitutako Plan Zuzentzaile⁹
hau Gatz Harana ikuspuntu askoz ere berritzaileago
batzuetatik eta, segur asko, baita eraginkorragoetatik
ere, berreskuratzeko xedean abiarazitako tresna izango
zen¹⁰ berriro ere.

Alberto Plata Montero funtsezko pieza izan da pro-
zesu honetan guztian. Segur asko ez da herrialde hone-
tan barrualdeko gatzagei buruz berak adina dakienik. Ez
du soilik Añanako ikerketa lanetan parte hartu¹¹. Ho-
nakoa ere ez da bere lehenengo lana¹², eta, zalantzarik
gabe, ez da azkenekoa izango.

Bere azkeneko liburu guztiz interesgarrian —*El ciclo
productivo de la sal y las salinas reales a mediados del si-
glo XIX (2006)*— Alberto Platak xehetasun osoz azter-
tzen ditu XIX. mendearen erdialdean, Espainiako Koroak
gatzaren monopolioa indargabetu baino lehen, jardun-
ean ziren ehun gatzaga baino gehiago. Horietatik asko
eta asko ahaztuta dauden honetan, baita haiei leku egin
dieten eremuak ere, Añanaren memoria historikoari
eusteko zerbitzu itzela da lan hau.

Gure aitzin-solas honi leku egiten dion lan hau egi-
learen obrarik akademikoena izango da ziurrenik, izan
ere, bere Doktore Tesiaren atala osatzen du. Lan ho-

¿Por qué no hacer otro tanto en el occidente ala-
vés? La maquinaria se puso en marcha en esta dirección
a finales precisamente del siglo pasado. Se partía, ade-
más, de una experiencia exitosa⁸ y, desde la dirección
de Patrimonio Arquitectónico de la Diputación Foral de
Álava —bajo la responsabilidad entonces de J.I. Lasaga-
baster— se creyó firmemente en la conveniencia de
repetirla. Un Plan Director⁹ adecuado a las circunstan-
cias y necesidades del lugar fue la herramienta, una vez
más, que iba a poner en marcha la recuperación del Val-
le Salado desde perspectivas mucho más novedosas y,
muy probablemente, más eficaces también¹⁰.

Alberto Plata Montero ha sido una de las piezas
claves en todo este proceso. Es seguramente la per-
sona de este país que más sabe sobre salinas de inter-
rior: Las de Añana no son las únicas en cuya investiga-
ción haya tomado parte¹¹. Tampoco es ésta su primera
obra¹² ni será con toda seguridad la última.

En su utilísimo libro sobre *El ciclo productivo de la sal y
las salinas reales a mediados del siglo XIX (2006)*, Alberto
Plata analizaba en detalle las salinas —más de cien— que
estaban en funcionamiento a mediados del siglo XIX an-
tes de que la Corona española aboliera el monopolio de
la sal. Olvidadas muchas de ellas, incluso sus escenarios
geográficos, la obra constituye un impagable servicio a la
conservación de su memoria histórica.

Pero es probablemente esta obra que prologamos
la más académica de cuantas ha escrito, no en vano
constituye parte de su Tesis Doctoral. Hay algo de este

8 Azkarate, A., Camara, L., Lasagabaster, J.I., Latorre, P., *Plan Director de Restauración de la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz*, (3 liburuki), Gasteiz 2001. (European Union Prize for Cultural Heritage / Europa Nostra Awards 2002).

9 Avalos, A., Azkarate, A., Landa, M., Lasagabaster, J.I., Ochandiano, A. (2003), *Plan Director para la recuperación integral del valle-salado de Salinas de Añana*, Gasteiz.

10 Sortzen diren aukeren laburpen baten berri izateko, ikus, cfr: Landa, M., Plata, A., (2007), *Valle Salado de Añana. Hacia su recuperación integral*, Vitoria-Gasteiz.

11 Plata, A. (2005), Análisis histórico-arqueológico de las salinas de Poza (Burgos), *Plan Director del conjunto de las Salinas de Poza de la Sal y su entorno*, Burgos.

12 Plata, A. (2003), La aplicación de la Arqueología de la Arquitectura a un complejo productivo. El valle salado de Salinas de Añana (Araba), *Arqueología de la Arquitectura* 2, 241-248; Ibídem (2006), *El ciclo productivo de la sal y las salinas reales a mediados del siglo XIX*, Gasteiz; Ibídem (2008), Nuevas formas de afrontar el estudio del patrimonio salinero. La Arqueología de la Arquitectura y las salinas de Añana (País Vasco), Morère Molinero, N. (Ed.), *Las salinas y la sal de interior en la historia: economía, medio ambiente y sociedad*, Sigüenza; Ibídem (e.p.), La recuperación y el estudio de una fábrica de sal. Las salinas de Añana (Álava), *Actas del congreso explotación histórica de sal: investigación y puesta en valor*, Ciempozuelos; Ibídem (e.p.), Arqueología de las salinas. El método de estudio de un paisaje cultural construido, *Kobie*, (e.p.); Plata, A., Landa, M., Lasagabaster, J. I., (2008), Gesaltza Añana, Araba, Vayá, J.F., Hueso, K. (Coords.), *Los paisajes ibéricos de la sal. I. Las salinas de interior*, Guadalajara, 45-57. orr: Landa, M., Plata, A. (2008), *Valle salado de Añana. Hacia su recuperación integral*, Gasteiz.

8 Azkarate, A., Camara, L., Lasagabaster, J.I., Latorre, P., *Plan Director de Restauración de la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz*, (3 vols.), Vitoria 2001. (European Union Prize for Cultural Heritage / Europa Nostra Awards 2002).

9 Avalos, A., Azkarate, A., Landa, M., Lasagabaster, J.I., Ochandiano, A. (2003), *Plan Director para la recuperación integral del valle-salado de Salinas de Añana*, Vitoria-Gasteiz.

10 Para ver una síntesis de las posibilidades que se abren, cfr: Landa, M., Plata, A., (2007), *Valle Salado de Añana. Hacia su recuperación integral*, Vitoria-Gasteiz.

11 Plata, A. (2005), Análisis histórico-arqueológico de las salinas de Poza (Burgos), *Plan Director del conjunto de las Salinas de Poza de la Sal y su entorno*, Burgos.

12 Plata, A. (2003), La aplicación de la Arqueología de la Arquitectura a un complejo productivo. El valle salado de Salinas de Añana (Álava), *Arqueología de la Arquitectura* 2, 241-248; Ibídem (2006), *El ciclo productivo de la sal y las salinas reales a mediados del siglo XIX*, Vitoria; Ibídem (2008), Nuevas formas de afrontar el estudio del patrimonio salinero. La Arqueología de la Arquitectura y las salinas de Añana (País Vasco), en Morère Molinero, N. (Ed.), *Las salinas y la sal de interior en la historia: economía, medio ambiente y sociedad*, Sigüenza; Ibídem (e.p.), La recuperación y el estudio de una fábrica de sal. Las salinas de Añana (Álava), *Actas del congreso explotación histórica de sal: investigación y puesta en valor*, Ciempozuelos; Ibídem (e.p.), Arqueología de las salinas. El método de estudio de un paisaje cultural construido, *Kobie*, (e.p.); Plata, A., Landa, M., Lasagabaster, J. I., (2008), Salinas de Añana, Álava, en Vayá, J.F., Hueso, K. (Coords.), *Los paisajes ibéricos de la sal. I. Las salinas de interior*, Guadalajara, pp. 45-57. Landa, M., Plata, A. (2008), *Valle salado de Añana. Hacia su recuperación integral*, Vitoria.

nek, gainera, badu oso liluragarri egiten duen zerbait. Alberto Platak trebetasun osoz baliatu du «atzerantzko azterketa», ikerketaren ohiko prozesua alderantzizaturik gauzen sekuentzia berreskuratzeko modua eskaintzen digun tresna metodologikoa, hau da, atzerantz egin du, ezagututako azken ondorioetatik abiatu-rik guztien jatorriraino eginez. Ildo honetatik, irribarre zabala egingo zuen dagoen dokumentazio oparoa aztertzen hasi zenean eta ia mila urteko aldea erakusten zuten dokumentu bien artean bat etortze guztiz har-riagarria hauteman zuenean: dokumentu horietan berrienak gatzunaren banaketaren inguruko usadio bat jasotzen zuen, K.o. X. mendeko konderriko agintari-ek emandako eskubideetatik zuzen-zuzenean eratorria.

Et iussit comes ut acciperent ipsam salsam homines Sancti Emiliani dominica die summno mane, in aurora, usque ad vesperum (948. urtea)

Et Domingo las mismas horas tienen todo el Royo las Heras que llaman de San Millán... del quebrar deel Alba asta lastres dela tarde (1760. urtea).

trabajo que nos ha parecido especialmente fascinante. Alberto Plata ha sabido manejar con habilidad el «análisis regresivo», un instrumento metodológico que nos permite reconstruir la secuencia de las cosas invirtiendo el proceso habitual de investigación, es decir, yendo hacia atrás, partiendo de la más contemporánea de las consecuencias conocidas y retrocediendo a otras inmediatamente anteriores hasta alcanzar los orígenes de todas ellas. En este sentido, tuvo que sonreír con íntima satisfacción cuando, haciendo un vaciado sistemático de la numerosa documentación existente, se encontró con una coincidencia asombrosa entre dos documentos separados por casi un milenio: el más moderno de ellos estaba recogiendo una costumbre sobre la distribución de la salmuera que derivaba directamente nada menos que de los derechos concedidos por las autoridades condales en el siglo X d.C.

Et iussit comes ut acciperent ipsam salsam homines Sancti Emiliani dominica die summno mane, in aurora, usque ad vesperum (año 948)

Et Domingo las mismas horas tienen todo el Royo las Heras que llaman de San Millán... del quebrar deel Alba asta lastres dela tarde (año 1760).